

# Osasuna

JABIER AGIRRE

## Biriketako minbizia, gaitz traidorea

Gaixotasun baten hasieraren berri lehen sintomekin izaten da normalean; biriketako minbizia, ordea, ez. Kasu askotan gaitza isilean pasatzen baita, eta nabarmentzen denerako beranduegi izaten da, zorritzarrez.

Biriketakoa da minbizi guztien artean beldurgarrienetakoa, ez bakarrik garaiz diagnostikoa egitea oso zaila delako, baita gorputzeko beste atal batzuetara oso bizkor hedatzen delako ere, eta batzuetan sintomak agertu aurretik.



Batez ere erretzailea izanez gero, bularraldeko mina edo odoleztatutako karkaxak agertu bezain pronto onena medikuarengana joatea da.

Gaitz traidorea da, beraz. Sarritan, kasualitate hutsez antzematen da, beste arrazoiren baten-gatik bularraldeko erradiografia bat egitean, esaterako. Minbizia oraindik tamainaz txikia denean eta inguruko ehunetara zabaldu gabe dagoenean diagnostikoa egitea oso garrantzitsua da, baina egoera hori oso gutxitan gertatzen da, bostetik batean gehienez ere.

Minbizia nabarmentzen denean, sintoma hauek ager daitezke: eztula, odola flemetan edo karkaxetan, min gogor eta iraunkorra bularraldean, aurpegiko, lepoko nahiz besoetako inflamazioa edo hantura —tumoreak bihotzaren mailaz azpitik dauden odol-hodi handiak estutu eta buxatzen dituelako—, pneumoniak edo bronkitisak bezalako arnas gaixotasunak behin eta berriz,

eta pisu galera. Baina ez da itxaron behar sintoma horietakoren bat begi-bistara nabarmendu arte; batez ere erretzailea izanez gero, bularraldeko mina edo odolez zikindutako karkaxak agertu bezain pronto onena medikuarengana joatea da.

Tratamendua zer-nolakoa izango den erabakitzeke hainbat faktore hartu behar dira kontuan: tumore mota eta haren zabalkundea, pazientearen osasun-egoera eta bizi-iraupenerako funtsezkoak diren bihotza, gibela edo giltzurruna nola daukanean gaixo bakoitzak. Orokorrean, hiru teknika hauen konbinazioa aukeratzen da:

- **KIRURGIA.** Eraginkorrena da, baina minbizia erabat erauzi daitekeenean baizik ez da erabiltzen, gaixoaren arnas funtzioa bere kasa aurrera jarraitzeko moduan geratzekotan betiere. Birikaren segmentu txiki bat, lobulu oso bat edo birika osoa erauzi daitezke, gaitza noraino zabaldua dagoen.
- **ERRADIOTERAPIA.** Energia altuko X izpiak dira, minbizi-zelulak suntsitzen dituztenak.
- **KIMIOTERAPIA.** Tratamendu nagusi moduan erabil daiteke, edo kirurgiaren osagarri. Batzuetan kirurgiaren aurretik erabiltzen da, tumorearen tamaina txikitzeko.

## “Eltxo” elektronikoa diabetikoei odola ateratzeko

Intsektu gogaikarri horren izena eman diote diabetikoentzat asmatu berri duten adabakiari. Gaixotasun hori dutenek oso sarritan atera behar izaten dute odola, eta adabakiari esker askoz modu erosogoa egin lezakete. <http://ttiki.com/3992>

## Gantzaren eta memoriaren arteko lotura

Gantz asko duten elikagaiak jateak epe luzeko oroimena suspertzen du, Kaliforniako Unibertsitateko ikerlari talde batek esan duenez. Hori bai, batez ere elikagai horiek jan izanaz gogoratzen gara. Dietari muzin egiteak eragiten duen “damua”-ren azalpen zientifikoa, nonbait. <http://ttiki.com/3992>

## Txutxu-mutxuen uestezko onurak

Kirats sexista halakoa sumatu diogu albisteari: txutxu-mutxuan aritzeak estresa eta antsietatea gutxitzen die emakumezkoiei, Michigan-eko Unibertsitatean egindako ikerketaren arabera. Diotenez, esamesek sortzen duten lagunenganako hurbiltasunak progesterona ekoizten laguntzen du. <http://ttiki.com/3994>

*Unai Brea*



Osasunari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali [osasuna@argia.com](mailto:osasuna@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

**Babeslea: iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza  
interaktiboa  
[www.iametza.com](http://www.iametza.com)  
T.943 37 67 16